



OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
Kide anitzeko organoa:	Osoko Bilkura
Deialdi-mota:	Ezohikoa
Data:	2023ko martxoaren 29a
Iraupena:	18:08tik 18:48ra
Lekua:	Osoko bilkuren aretoa
Udalburutza:	Unai Gutierrez Urkiza
Idazkaritza:	Oiartzta Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
INMA ELORZA BERGARA	BAI
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
DORLETA MARTINEZ DE ALBENIZ PEREZ	BAI
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO	BAI
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA	BAI
CONCHI LOPEZ LOPEZ	EZ
ANDRES LAFUENTE OTXOA	BAI
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA	BAI
LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ	BAI



Murgian, 2023ko martxoaren 29an, 18:08ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiartzu Urquijo Alaña andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu dira.

1.- EZTIAREN MUSEOA IREKITZEKO KUDEAKETA MANDATUA.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta martxoaren 24ko Gai Orokorren Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi ondoren, onespena proposatu du, Gorbeialdeko Kuadrillak bidalitako proposamena azaldu eta gero.

IKUSIRIK Gorbeialdeko Kuadrillak igorritako idazkia. Horren arabera, 2022ko azaroaren 23an egindako ohiko bilkuran, eskualdeko turismo-bulegoaren arreta-zerbitzua 2023an emateko lizitazio berri bat sustatzea erabaki zen, luzatzeko aukerarekin.

Aurrekoa gorabehera, eta lehenengo bisitariak eskualdera iristen diren denboraldia hastear dagoenez, eta laster Aste Santua izango denez, beharrezkotzat jotzen da bulegoa martxoaren 17tik aurrera martxan egotea. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da aldi baterako kontratu bat formalizatzea, lizitazio-prozesua amaitu arteko aldia betetzeko.

Langile horiek eztiaren museoko arreta-zerbitzua ere ematen dutenez, Zuiako Udalaren interesekoa balitz aurten mandatuarekin jarraitzea, Kuadrillari ahalik eta lasterren jakinarazteko eskatzen dugu, luzapen horretan eta lizitazioan sartu ahal izateko.

2023ko irekiera-egutegiaren proposamena honako hau da:



IREKIERA EGUNAK	IREKIERA ORDUTEGIA
<ul style="list-style-type: none"> • MARTXOA: asteburu guztietan, hilaren 18tik aurrera (4 egun) • APIRILA: asteburu guztietan (Aste Santua izan ezk) eta hilaren 28an (9 egun). • MAIATZA: asteburu guztietan eta hilaren 1ean (9 egun). • EKAINA: asteburu guztietan (8 egun). • IRAILA: asteburu guztietan (9 egun). • URRIA: asteburu guztietan, eta hilaren 12 eta 13an (11 egun). • AZAROA: hilaren 1ean (egun bat). <p>GUZTIRA: 51 egun * ordu bat egunean: 51 ordu</p>	<p style="text-align: center;">12:30etik 13:30era</p>
<ul style="list-style-type: none"> - ASTE SANTUA: apirilaren 6tik 10era (5 egun) - Uztail eta abuztuko larunbat eta igandeetan (18 egun) - Uztaila 25 - Abuztuak 15 <p>GUZTIRA: 25 egun * 2 ordu egunean: 50 ordu</p>	<p style="text-align: center;">11:00etatik 13:00etara</p>
<p>Beste ordutegi batzuk:</p>	<p style="text-align: center;">945430 440 zenbakira deituta, aurretiko hitzordua eskatzeko</p>

2023an irekiko den egunak eta orduak, guztira: 76 egun - 101 ordu.

Prezioari dagokionez, oraindik ez dakigu zein izango den prezioa, ageriko arrazoiengatik, baina aurreko deialdikoa baino zerbait gehiago izango da (22 € orduko, BEZik gabe), prezioen igoera orokorra dela eta.

JAKINDA Murgiako Eztiaren Museoaren titularra Udala dela, eta emandako zerbitzuarekin aurreko urteetan bezala jarraitu nahi duela.

KONTUAN HARTUTA udal titulartasuneko Eztiaren Museoko zerbitzuaren kudeaketa koadrilaren esku uztea egokiena eta komenigarriena dela, erabiltzaileari eragin lekizkiokeen arazoak saihesteko.



KONTUAN HARTUTA Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan kudeaketa-mandatuari buruz xedatutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarria.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. – Murgiako Zuiako Eztiaren Museoaren 2023ko kudeaketa agintzea, akordio honetan oinarrituta.

BIGARRENA. – Mandatuaren xede den zerbitzua emateak eragindako gastua baimentzea, 2023ko Udal Aurrekontuko 432.421.000 partidaren kargura, 2024ko luzapena ekitaldi horretako aurrekontuan dagokion kontsignazioaren baldintzapean.

HIRUGARRENA. – Ebazpen hau Gorbeialdeko Kuadrillari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sinatze aldera.

2.- Ibilgailu elektrikoaren kargagailuaren prezio publikoa onartzea.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta martxoaren 24ko Gai Orokorren Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.



IKUSIRIK Zuiako Udalak ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bat jarri duela, eta beharrezkoa dela herritarrei zerbitzu hori emateagatikozko prezio publiko bat arautzea.

Ingurumen-teknikariaren 2023ko martxoaren 15eko txosten tekniko-ekonomikoa IKUSIRIK.

IKUSIRIK prezio publikoak onartu edo aldatu aurreko kontrol iraunkorreko txosten juridikoa, Idazkaritzak 2023ko martxoaren 21ean egindakoa.

KONTUAN HARTUTA Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 46. artikulua eta hurrengoak.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. – Behin-behinean onartzea tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa, udal-kargaguneetan karga elektrikoko prezio publiko bat sartzeko, I. eranskinean jasota dagoen bezala.

BIGARRENA. – Espedientea izapidetzea eta nahitaezko publizitatea egitea, udaletxe honetako iragarki-oholean eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean ikusgai jarrita, 30 egun balioduneko epean. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute, eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu. Halaber, interesdun guztien eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan (www.zuia.eus).



HIRUGARRENA. - Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ezean, akordioa behin betikotzat jotzea, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.3 artikuluari jarraiki.

LAUGARRENA. - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak agindu eta agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

I. ERANSKINA

KARGA ELEKTRIKOAREN PREZIO PUBLIKOA UDAL KARGAGUNEETAN

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Karga elektrikoa hornitzeko prezio publikoa ezartzen da, ibilgailu elektrikoa udal-puntuetan kargatzeko interesa duten erabiltzaileentzat.

2. ARTIKULUA.- ZERGA EGITATEA

Zerga-egitate argindarra kargatzeko zerbitzua ematea da, hau da, konexioa eta elektrizitate-kontsumoa, bai eta bide publikoaren erabilera eta beharrezko azpiegitura ere.

3. ARTIKULUA.- SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK

Udal-kargaguneetan ibilgailu elektrikoaren karga eskatu eta egiten duten erabiltzaileek ordaindu beharko dute.

Ibilgailuen jabeak izango dira erantzule subsidiarioak.

4. ARTIKULUA.- ZENBATEKOA

Deskarga-tarifa 0,20 €/ kWh izango da.

5. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK

Udal-jabetzako ibilgailuak salbuetsita daude ordaintzetik.



6. ARTIKULUA.- SORTZAPENA

Zerbitzua eskuratzeko eskaera egiten den unean sortzen da prezio publikoa.

3.- HLBGZren gaineko zergaren ordenantza fiskala aldatzea, 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren arabera.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta martxoaren 24ko Gai Orokorren Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi ondoren, berriro azaldu da egin beharreko egokitzapena.

IKUSIRIK Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren aldaketa onartzen duena. Testu bategin hori irailaren 29ko 4/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen, eta sortzapenaren unean lurraren balioari aplikatu beharreko gehieneko koefizienteen eguneratzea jasotzen du, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Arabako udalek 2023ko ekainaren 30era arte dute ordenantza fiskala aldatzeko, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testuaren aldaketa horretara egokitze aldera.

IKUSIRIK Idazkaritzak 2023ko martxoaren 3an egindako txostena, tokiko zergak arautzen dituen ordenantza fiskala onartu edo aldatu aurreko kontrol iraunkorrari buruzkoa.

IKUSIRIK doitu beharreko koefizienteak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.d) artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz.



AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. – Behin-behinean onartzea hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketa, muga hori gainditzen duten koefizienteak egokituz, I. eranskinean jasota dagoen bezala.

BIGARRENA. – Espedientea izapidetzea eta nahitaezko publizitatea egitea, udaletxe honetako iragarki-oholean eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean ikusgai jarrita, 30 egun balioduneko epean. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute, eta egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu. Halaber, interesdun guztien eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan (www.zuia.eus).

HIRUGARRENA. – Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ezean, akordioa behin betikotzat jotzea, martxoaren 5eko 2/2004 LEDaren bidez onartutako Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 17.3 artikuluari jarraiki.

LAUGARRENA. - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak agindu eta agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

I. ERANSKINA

ZUIAKO UDALAREN HLBGZ ZERGAREN 2023KO KOEFIZIENTEEN TAULA.

Sortze-aldia	Koefizientea
Urtebetetik behera	0,14
1 urte	0,13
2 urte	0,14
3 urte	0,15



4 urte	0,17
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,09
15 urte	0,10
16 urte	0,13
17 urte	0,17
18 urte	0,23
19 urte	0,29
20 urte edo gehiago	0,45

4.- 2024ko Baso-espedientea.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko martxoaren 24ko Gai Orokorren Informazio Batzordean azaldutakoa berretsiz, Planean 2024rako aurreikusitako baso-aprobetxamenduen berri eman du. Aprobetxamendu horiek urtero errepikatzen dira (egur-sortak, larreak, ehiza-barrutia, hausturak, txabolak eta erlauntzak okupatzea, golf-zelaia), eta esan du 80 eskaera inguru jaso direla.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. - 2024ko baso-aprobetxamenduen plana onartzea.

BIGARRENA. - Plan horrekin batera, erabaki honen kopia bidaltzea Arabako Foru Aldundiari, onar dezan.



HIRUGARRENA. - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak agindu eta agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

5.- Judizioz kanpoko espedientea.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2022an egindako gastuen berri eman du. Gastu horietarako ez zen kontsignatu ekitaldi horretan, edo ez zen aurkeztu 2022ko abenduaren 31 baino lehen aitortzeko behar zen dokumentazioa (data horren ondoren aurkeztu zen). Gastu horiek galdagarriak dira, hartzekodunek dagokien prestazioa bete dutelako. Hori dela eta, 2023ko ekitaldi honetako Aurrekontu Orokorrean dagozkion betebeharrak aitortu behar dira.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik.

Kontuan hartuta Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 4. eta 19. artikuluetan, Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Udal Arauaren 4.3 eta 23.3. artikuluetan, eta Toki Ogasunen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 163. Artikuluan, apirilaren 20ko 500/90 Errege Dekretuaren 60.2 artikuluari dagokionez, xedatutakoa,

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkartzen duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. - Aurreko ekitalditik eratorritako 7.025,99 euroko gastu-betebeharrak 2023ko Aurrekontu Orokorrean aitortzea, ondoren zehazten diren partiden kargura:



Ekitaldia	Faktura/Kontzeptua	Indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontu-partida
2023	Zuiako herrietako jatorriei buruzko ikus-entzunezko zerbitzua: 1.815,00 €	334.226.060
2023	Oregi etxeko berogailurako erregaia: 2.095,44 €	330.221.030
2023	Bea-Murgia etxeko berogailurako erregaia: 1.751,46 €	330.221.030
2023	Udaletxeko berogailurako erregaia: 1.364,09 €	920.221.030

Kredituak, guztira..... 7.025,99 euro

BIGARRENA. - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak agindu eta agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

6.- Kreditua gaitzeko 1/2023 espedientea.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATEAK hitza hartu, eta kreditua gaitzeko espedientea onartzeko proposamena egiteko arrazoien berri eman du: Oregi Etxean konponketa-obra eta nahitaez bete beharreko bi azterlan egiteko zerbitzuak. ALKATEAK gaia azaldu du, idazkariak lagunduta.

* Oregi Etxearen horma berreraikitze mantentze-obra: 7.000,00 euro gehitzea 330.211.001 partidan.

* Zuiako Udalaren arrisku psikosozialen ebaluazioa eta amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda: 8.700,00 euro gehitzea 334.227.200 partidan.

Aldaketa gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatu da.



Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik,

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. - Kreditu gehigarriaren 1/2023 espedientea onartzea, 15.700,00 euroko zenbatekoarekin, ondoren zehaztu eta finantzatzeko duen errekurtsioa aurkeztuta.

BIGARRENA. - Espediente hori jendaurrean jartzea, erreklamazioak egin ahal izateko, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

HIRUGARRENA. - Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea, eta egotekotan, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.

LAUGARRENA. - Behin betiko erabakia arauzko moduan eta epean argitaratzea.

BOSGARRENA. - Aldi berean, espedientearen kopia bat Arabako Foru Aldundiari bidaltzea.

SEIGARRENA. - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzen.

GASTUEN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
330.211.001	Liburutegia eta Kultur Etxea konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea	7.000,00
334.227.200	Tasazioak eta Azterlanak	8.700,00

GASTUEN ALDAKETA GUZTIRA 15.700 €



Aurreko zenbatekoa ondoren zerrendatzen den baliabideak finantzatzen du, eta, beraz, espedientea orekatuta eta defizitik gabe dago:

SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	15.700,00

SARREREN ALDAKETA GUZTIRA..... 15.700,00 €

7.- Ondorengo arloetako dirulaguntzen ordenantza onartzea:

- Haurreskola
- Garraioa eta ikasten laguntzea
- Etxe barruko zainketetarako kontratazioa
- EITak egitea
- Euskara ikastea
- Alokairurako laguntzak
- Haurren harrera
- Kirolari gazteentzako laguntzak
- Baserriak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

INMA ELORZA BERGARA zinegotziak hitza hartu, eta 2023ko martxoaren 24ko Gai Orokorren Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du. Deialdian eta onartu nahi diren dirulaguntzen oinarrietan eta aurtengo epe-aldaketetan berdintasun-klausulak sartu diren edo ez laburbildu du.

ALKATE-UDALBURUAK eta AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA zinegotziak hitza hartu, eta azaldu dute baserriak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzen deialdia eta oinarriak ez bozkatzea proposatu dutela, aldatu beharreko alderdiak gehiago zehazteko eta Udalbatzako gainerako taldeen proposamenak jasotzeko. Udalbatzak gaia eztabaidatu du.



AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkurara** bertaratutako kideak ados azaldu dira **aho batez**, eta, beraz, gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (3) eta ALDERDI POPULARRA (1). Hartara, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. – Honako arlo hauetako dirulaguntzen deialdiak onartzea: haurreskola, garraioa eta ikasten laguntzea, etxe barruko zainketetarako kontratazioa, EITak egitea, euskara ikastea, alokairurako laguntzak, haurren harrera eta kirolari gazteentzako laguntzak, 2023ko dirulaguntza horien oinarri arautzaileekin bat etorriz eta jarraian zehazten diren aldaketekin:

- Horiek babesten dituzten aurrekontu-kredituak 2023ko udal-aurrekontuari dagozkio.
- 2021/2022 denboraldiari egiten zaion erreferentzia 2022/2023 denboraldiari egiten zaiola ulertuko da.
- 2022. urteari egiten zaion erreferentzia 2023. urteari egiten zaiola ulertuko da.
- Haurreskolaren erabiltzaileentzako 2021eko errentari buruzko erreferentzia 2022ko errentari dagokiona dela ulertuko da.
- Berdintasun-klausula bat sartu da Haurreskolak partzuergoaren menpeko udalaren haur eskolan matrikulatutako haurrak dituzten familientzako laguntzetan: "*Genero-indarkeriaren biktimen seme-alabak salbuetsita egongo dira Zuian erroldatuta egotetik edo erroldatuta egotetik diruz lagundu daitekeen jarduerak irauten duen bitartean.*".

BIGARRENA. – Akordio honetan araututako dirulaguntzak 2023ko gastuen aurrekontuko 326.481.050 (3.000,00 €), 326.481.020 (17.500 €), 231.480.090 (6.000 €), 1522.481.000 (1.500 €), 335.480.000 (10.000 €), 1521.481.080 (25.000 €), 231.780.000 (3.500 €) eta 341.481.090 (5.000 €) partiden kargura ordainduko dira.



HIRUGARRENA. – Deialdi horiek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, oinarrien arabera eta horiekin batera.

LAUGARRENA. - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzen.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 18:48an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaritza,